



Herriko gizarte eragile eta sektore desberdinetako pertsonen babesa izan zuen Bilduren zerrendak.

Mayi Bengoetxea Aralarreko beste hautagaiekin egon zen azokan, horien artean Aintzane Ezenarro.

## Azken txanpa

Igandean izango dira Udala eta Batzar Nagusiak berritzeko hauteskundeak. Kanpainako azken txanpan sartu dira alderdiak, beraz.

Horregatik, aste honetan alderdi ezberdinetako hautagaiak gure herriko kaleetan zehar ikusi ditugu boto bila.

Astelehenean Martin Garitano, Gipuzkoako Batzarrerako Bilduko hautagai nagusia izan genuen herrian eta asteartean, herriko arlo desberdinetako pertsonen babesa duela adierazten duen argazkia atera zuten.

Asteazkenean, alderdi gehienak azokan egon ziren.

Igandean hauteskundeak direla eta, TXINTXARRIREN hurrengo zenbakia maiatzaren 24an, asteartean, argitaratuko dugu

Aralarreko Aintzane Ezenarro herriko hautagaia den Mayi Bengoetxearekin aritu zen programa politikoa zabalitzen.

Hamaika Bateko Pello Gonzalez eta beste zenbait hautagai ikusteko parada ere egon zen. PSE-EEko Miguel Buen arrosak banatzen aritu zen eta EAJko kideak ere bertan egon ziren haien hauteskunde programa azaltzen.

Gaur kanpainari amaiera emateko eguna izango da alderdientzat. Bihar egun hauetan jasotako informazio guztiari buruzko hausnarketa egiteko garaia iritsiko da.

Eta igandean, herritarren botoekin hurrengo lau urtetan Udalean eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan aginduko dutenen izenak aukeratu dira.

Hurrengo TXINTXARRI asteartean argitaratuko dugu, emaitza guztiekin eta alderdien balorazioarekin.

Hala ere, igande iluntzetik aurrera [www.txintxarri.info](http://www.txintxarri.info) web atarrian jarraipena egingo diegu hauteskunderi. •



Pello Gonzalez, Maite Etxaniz... Natxo Izeta eta herriko Hamaikabateko hautagaiak azokan.



Miguel Buen, PSE-EEko hautagaia, Zaballosekin batera ibili zen herriko kaleetan arrosak banatzen.

Estitxu Alkorta

Lasarte-oria

Lasarte-oria

ONENA EMATEKO GARAIA

bozkatu

EAJ PNV

Jakin eta egin

**Zorion-agurrak**



**Eider**

Zortzi muxutxo zure familiaren partetik.



**Jose**

Berrogeitapiku??? Piku + piku... Badakizu!!! Disfrutatatu denak. Muxuk familiaguztiren partetik.



**Leire**

Zorionak Mari Guapa! Ederki pasa genuen atzo!! Muxuak lehengusu guztien partetik.



**Sara**

Zorionak etxeko prinzesari. Etxeko erregina, aitaxo eta amatxoren partetik.



**Eneitz**

Zorionak preziosa!! Hamar muxu Eñut eta gurasoen partetik.



**Eneko**

Zorionak! Lau muxu potolo zure lehengusu Ane eta Jon-en partetik.



**Irati, Erika eta Leire**

Zorionak hirukote! Ondo pasa zuen egunean, Maite-ren partetik.



**Eider**

Zorionak! 16 muxu handi familiaren partetik. Gurasoei zorionak ere 19. urteurrenagatik.



**Aiora**

Zorionak polita zure 6.urtebetetzean eta muxu handi bat familiaren partetik.



**Nerea**

Zorionak, gure etxeko panpiña!. Askok maite zaitugu!



**Irati**

Zorionak bihotza! 6 muxu handi handiak zure aitaxo, amatxo eta Asierren partetik!

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Lizarran pisua salgai. Aukera paregabea. Ez zara damutuko. Tel.: 677 678 270.

• Etxebizitza salgai. Lau gela, sukaldia, egongela, bainu bat eta komun bat, bi balkoi, trastero bat eta garaje bat. Denak kanpora ematen du. Decathlonetik gertu. Errotazar Bidea, 40. Harremanetarako, 635 710 170.

• Etxea alokatzen da Usurbil erdian, bi logela. Tel.: 685 724 771.

Hernaniko alde zaharrea etxe berria salgai. 270.000 euro. Harremanetarako zenbakiak, 943 332 320 edo 685 369 952.

• Pertsona esperientziaduna eta tratu onekoa. Harremanetarako zenbakiak, 680 983 527 (Carlos).

• Magisteritza diplomatua eskaintzen da ingelerako klaseak emateko, DBH4 mailara arte. Tel.: 660 465 247, Miren.

• Emakume bat goi-mailako frantzesearekin hurrei-helduei eta enpresetan klaseak emateko eskeintzen da. Itzulpenak ere egiten ditu. Telefono: 680 581 914 / 943 372 748.

• Neska arduratsua eskeintzen da adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko, baita garbiketa lanak egiteko ere. Tel.: 648 905 003.

**Bestelakoak**

• Josteko makina pedaladuna, kendu edo etxetik atera nahi baduzu, gustora hartuko nuke. Tel. 943 247613 edo 615 709 117 Pilar.

**Lan-eskariak**

• Gizonezko batek lan egingo luke zamalanean, lorezaintzan, eraikuntzetako zaintzaile e.a. Harremanetan jartzeko, 667 808 934.

• Pertsona arduratsua pertsona adindua eta gaixoak zaindu, atezain lanak, garbiketa lanak edo bestelako lanak egingo lituzke.

**Oharra jartzeko:**

www.txintxarri.info  
Tel.: 943 366858

**Jaiotzak**

- Oier Avila Yarza, maiatzaren 12an
- Luka Sanchez Iraola, maiatzaren 11ean.

**Heriotzak**

- Jose Angel Echeveste Arrizabalaga, maiatzaren 17an 56 urte zituela.
- Casimiro Martinez Serrano, maiatzaren 16an 94 urte zituela.
- Patxi Amiano Oyarzabal, maiatzaren 14ean 74 urte zituela.
- Maria Nuñez Arevalo, maiatzaren 14ean 94 urte zituela.

**Hiribusaren ordutegia**

	Antxisu	Zabaleta	Atsotak	Cocheras
	7:45	7:55	8:00	8:05
	8:15	8:25	8:30	8:35
	8:45	8:55	9:00	9:05
	9:15	9:25	9:30	9:35
	9:45	9:55	10:00	10:05
	10:15	10:25	10:30	10:35
	10:45	10:55	11:00	11:05
	11:15	11:25	11:30	11:35
	12:15	12:25	12:30	12:35
	12:45	12:55	13:00	13:05
	13:15	13:25	13:30	13:35
	13:45	13:55	14:00	14:05
	14:15	14:25	14:30	14:35
	14:45	14:55	15:00	15:05
	15:15	15:25	15:30	15:35
	16:15	16:25	16:30	16:35
	16:45	16:55	17:00	17:05
	17:15	17:25	17:30	17:35
	17:45	17:55	18:00	18:05
	18:15	18:25	18:30	18:35
	18:45	18:55	19:00	19:05
	19:15	19:25	19:30	19:35
	19:45	19:55	20:00	20:05
	20:15	20:25	20:30	20:35

tsst  
943.361.741  
www.tsst.info



**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdiak**

Osasuna Zentroa ... 943 007960  
DYA ... 943 464622  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ... 943 362442  
Ertzaintza ... 943 288888  
SOS Deiak ... 112

**Udala**

Erregistroa ... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua ... 943 376184  
Kirolegia ... 943 376182  
Kulturetxea ... 943 376181  
Zerbitzu Sozialak ... 943 376179  
KIUB ... 943 361605  
Udal euskaltegia ... 943 361621  
Munteri AEK euskaltegia ... 943 372863

**Guardiak**

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

**Ostirala, 20**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Larunbata, 21**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Igandea, 22**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Astelehena, 23**

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Astearte, 24**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Asteazkena, 25**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Osteguna, 26**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**

Chucua, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com. Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Tirabirak Somotoko ikerketa batzordean

- Idazkariak idatzitako txostenaren arabera Ana Urchueguia alkate ohiak ez du oker jokatu
- Prentsan argitaratu dute zirriborroa Udaleko zinegotzi gehienei jakinarazi baino lehen
- Oposizioaren ustez txostena partziala, gezurtia eta hauteskundeetako trikimailua izan da

Asteazkenean argitaratu zuen DV egunkariak Somotoko laguntzei buruzko Ikerketa Batzordeak ondorioztatu duela ez dela Ana Urchueguiaren jokabidean deliturik izan, batzorde honetako eta Lasarte-Oriako udaleko idazkari Xabier Ejearen txostenean oinarrituz. Oposizio-ko alderdiek asteazkenean bertan erantzun zuten elkarrekin, txostena funtsik gabea, partziala eta oso eskasa dela salatuz, ez dela egia esaten, informazioa ezkutatzeko delia, ikerketak Udalaren hurrengo legealdian jarraituko duela eta oztopatzen bada, epaitegietara joko dutela jakinaraziz. Prentsari beraiei baino lehen berri eman zaiola eta hauteskunde garaian herritarrak engainatzeko amarrua izan dela ere salatu zuten.



EB, Ezker Abertzalea, EAJ, Plataforma eta H1!ek bat egin dute txostenaren aurka.

**P**rentsan agertutako informazioa gezurtatu egin zuten Lasarte-Oriako Udaleko EAJ, Hamaikak Bat, Ezker Batua, Plataforma eta Ezker Abertzaleko zinegotziek asteazken arratsaldean Udaletxean denek elkarrekin emandako prentsaurrekoan. Ukatu egin zuten Somotora bideratutako diru laguntzen kasua amaitzeaz denik eta Ana Urchueguia aurreko alkatearen jokabidean delitu zantzurik ez dagoenik, beraz, argitaratu den informazio faltsua zuzentzeko ere eskatu zuten. Euren ustez, PSE-EE eta PPren iritzian

oinarrituz batzordeko idazkariak egindako txostena partziala da, informazioa ezkutatzeko du eta beraz ez da egia esaten. "Urchueguiari buruzko batzordeak kooperazio laguntzetan deliturik ez dela ondorioztatu du" izenburuak haserretu du oposizioa, jakinik oraindik eztabaidagai den behin behineko txosten batez ari dela eta bertan aitortzen dela gainera legearekin bat ez datozten jokabideak izan zirela. Behin idazkariak bere txostena aurkeztu eta gero, hilaren 25era bitartean zuzenketa egiteko aukera dute alderdiek.

Oposizio-ko alderdiek bat egin zuten asteazkenean eta hurrengo hilabeteetan ikerketarekin jarraitzeko asmoa defenditu. EAJko Estixu Alkortak aurreratu zuen, igandeko hauteskundeetatik ateratzen den Udal jarriak heldu behar-ko diola ikerketari eta oztopatzen bada, bide judizialek jarraituko duela.

Guztiak kritikatu zuten, kazetari bati batzordeko kideei baino lehenago bidali zaiola txostena eta lan hori batzordeko presidente Encinas PPko

ordezkariak hartu zuela orain arte beti oharrak idazkariak bidaltzen baditu ere.

Plataformak salatu zuen, DVren izenburua iruzurtia dela, egunkariak ez duela informazioa egiaztatu, eta informazioaren "ustezko" ondorioak gezurrezkoak direla: "egiaren parte handi bat ezkutatzeko da, esaterako ez ditu kontutan izan oposizio-ko alderdiek ikerketa batzordeari aurkeztutako hainbat frogak". Beraz formalki kexatuko dira, informazioa zuzentzeko eskatuz.

Ezker abertzalearen ustez larria da ikerketa batzordea bi urtetan lanean aritu ondoren EAJ, Plataforma, EB eta Ezker Abertzaleak egindako hainbat adierazpen eta salaketatik bat ere kontutan ez izatea eta kasua ezkutatzeko PSE-EE eta PPren arteko itunik dagoen galdetu zuen Txanpi Baztarrikak.

## Trikimailua

Ezker Batuko Ricardo Ortegak gogor salatu zuen DVren informazioan irakurleak engainatzeko asmoa zegoela, jakitun izanik idazkariarena "informe preliminar" bat dela, PSE-Eeren aginduz eta agian PPren ñabar-  
duraren batekin idazkariak egindako zirriborro bat eta izenburuan ageri dena ez dela benetan ikerketa batzordearen egoera. Jokabide oso larri eta lotsagabea dela salatu zuen eta PSE-EE jo zuen arduradunatzat.

H1!-eko ordezkariak salatu zuen Lasarte-Oriako Udalak bi milioi euroko laguntza eman badu ere, arduradunek ez dutela garbi esan zertan erabili den dirua, Nikaraguako nekazarien oinarriko beharrak ase diren, eta beraien etxeetan argi-inda-  
rra edo ura baduten. •

## Hirigintzako hainbat gai aztertuz amaitu zuen Udalak legealdia

**L**egealdiko azkeneko Udal Batzarrean Zatarain, Goegi-Ibarra eta Zabaleta-Berri eremuetan eraikuntza enpresek aurreikusitako zituzten familia bakarreko etxebizitzak Babes Ofizialekoak eta kontzesio-koak izatea onartu zen. Dena den, Ezker Batua eta ezker abertzaleko zinegotziak aldaketa horien guztien aurka agertu ziren.

"Promotoreen beharrei erantzuten dien aldaketa" da adierazi zuen Ricardo Ortegak. Ezker abertzaleko Txanpi Baztarrikak, besteak beste, proiektuak bere osotasunean egingo diren edo epeak betetzen badira zer egingo den galdetu zuen. Era berean, hurrengo Arau Subsidiarioak proiektu egingarriak egiteko guztien artean aztertu behar direla aipatu zuen.

Era berean, Errekalde atzekaldean egingo den industriaguneko proiektuaren lehen pausua onartu zen,



Legealdi honetako azken Udalbatzarrean hirigintzako gaiak izan ziren nagusi.

baita Michelingo eremuko industrialdeko proiektuan egingo den aldaketa bat ere.

### Atsobakar erresidentzia

Honetaz gain, Foru Aldundiak Atsobakarreko zahar-etxearen kudeaketa bere gain har dezan erreklamazio administratibo edo judizialak

aurkezteko alkatetzak egindako proposamena ere onartu zen hiru bozketen ondoren.

Oposizio-ko alderdi gehienek gaia mahai gainean uzteko eskatu zuten, bi bozketan berdinketa egon zen baina azkenik alkatearen kalitatezko botuari esker proposamena eztabaidatu eta onartu zen. •



Kukukako arduradunak, irakasleak eta gazteak bildu ziren aurkezpenean.

## Antzerki eta Dantza astea astelehenetik aurrera

**K**ukuka antzerki eta dantza Eskolak IX. Antzerki eta dantza astea aurkeztu zuen asteartean.


Hala baina, astea izan beharrean, aurten bi aste izango dira, bata maiatzaren 23an hasi eta 29an bukatuko da eta bestea ekainean izango da, 6tik 11ra.

Guztira Lasarte-Oria, Añorga eta Zubietako 30 taldetik gora izango dira oholtza gainean eta azkeneko egunean,

Jalgune taldeko gazteak daude gonbidatuak.

Aurten gainera, azpimarratzekoa da ikasle guztien desfilia maiatzaren 28an izango dela eta dantzari dagokionez, lehenengoz, euskal dantza eta sorkuntza dantza garaikidetik bananduak egingo direla bi saio desberdinetan.

Gauzak honela, astelehenetik ostiralera, istorio desberdinak ezagutzeko aukera egongo da kultur etxean, 19:00etan. •



lasarte/oria


www.comercio-gipuzkoa.com

# Urratu eta irabazi!

Eskuratu zure saria Aterpea saltokietan erosiz, "urratu eta irabazi" txartelekin! Maiatzaren 15etik 30era, Aterpea saltokietan, erosketa bakoitzarekin urratu txartelak lortuko dituzu, eta baita beharpen baleak eta promozio zuzenak ere. Gainera, Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpea elkartearen txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, %2ko beharpena izango dute. Ekainaren 30era bitartean trukatuko dituzte "urratu eta irabazi" txartelak.



**MAITE BETELU** gestoria, Maite  
www.mbetellu.com



**IZARRA** bitxetaria, Rosa eta Juan  
%10eko beharpena erosketan



**MAYA** leizetaria, Jone  
%10eko beharpena korntsesterian



**SUKOA** burdindenda, M<sup>o</sup> Jesus  
Arosketa egatik gurez arintzeko urratsak




**BAZAR ABREU**, Diego  
%20eko beharpena emakumeen sterilekin eta mugikorra erosiz, gero, tunda cipuri




**EKAIN** liburudenda, Itzi  
Plastina bat edozein erosketarekin



**LARRANAGA** harategia, Paqui Ana eta Naroa  
www.patxilaranaga.com



**OKELA** harategia, Marijo eta Joseba



**ZUMABURU** liburudenda, Lola  
Opari bat 10 euroko erosketarekin




**ARITZA** mertzeria, M<sup>o</sup> Carmen  
%10eko beharpena mertzerian, barruko arropan eta konpoinketan




**DAKARA** taberna, Jeni, Maria eta Liti  
"Aterpea" pintxoa



**LIZARRI** optika, Izar  
%10eko beharpena eguzkitako bezurrekoetan



**OLMI** mertzeria, Julio, Olimi eta Lurdes




**MICHELIN** kooperatiba  
www.coopmichelin.es



**ARREGUI** elektrizitatea, Mikel eta Ainhoa  
Lanpara erosketatik, kontsumo baxuko bonbilla opari



**GOXOGI** gozotegia, Inma eta Joseerra  
Gozogintzan 20 euroko erosketarekin, bi ogi



**MAIANE** perfumeria, Ana  
Bidetarako kosmetikako kit bat



**ORMAZABAL** loraldendak, Ramon eta Koro  
Lan daireko bat opari



**ALDATZ** hortz klinika, Juanjo  
www.dentalaldatz.com



**MARTINEZ MULTIMEDIA**, Jesus  
Ordengailurako xagu bat opari




**ITURBE** oinetakoak, Maixa  
Zapatza pare bat erosiz gero, pasmina opari



**MARTIN BERASATEGI** jatetxea, Martin  
www.martinberasategui.com



**OTAEGI** altzarak  
www.inchaustiddecoracion.com



**URRUZOLA** mertzeria, Lurdes  
%10eko beharpena palazoaren materialen izan ezik

Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 21**

10:30ean, Ostadar - Amaiak Bat (K.O. maila, igoera) Michelin.  
 12:00etan, Ostadar - Amaiak Bat (J.O. maila, igoera) Michelin.  
 15:30ean, Texas Lasartearra - Dunboa Eguzki (I. Erregionala, kopa) Michelin.  
 16:00etan, Mutriku - Ostadar (E. Gorena, 3. postua) San Miguel, Mutriku.  
 17:15ean, Ostadar - Beasain (Em. KDT F-11, txapeladunen faseko kanporaketak) Michelin.  
 18:15ean, Beasain - Ostadar (I. Erregionala, igoera) Igartza, Beasainen.

**Igandea 22**

11:30ean, Bergara - Ostadar (I.O. maila, txapeladunen fasea) Ipintza, Bergara.  
 12:00etan, SANSE- Ostadar (Alebi-nak, kopa) Felix Garin, Donostia.

**ARETO-FUTBOLA**

**Ostirala 20**

20:40ean, ISU Leihoak - Zurt taberna (Gipuzkoako Liga, finalak) Kiroldegian.

**Larunbata 21**

**HERRIKO TXAPELKETA FINALAK**

Kiroldegian  
 15:30etan, **Kontsolazioko finala:** Obelix - Illun  
 16:30etan, **Ligaxkakoko finala:** Ilargi - Ayete  
 17:30etan, **Jalgune - Talde mistoa**  
 18:00etan, **Txapelketako finala:** ISU Leihoak - Izkiña

12:00etan, Bilbo - Aldaz H.K. (Nazional B maila) La Casilla kiroldegia, Bilbon.

**PILOTA**

**Larunbata 21**

11:00etan, Lasarte-Oria - Bidegoian (Herriarteko txapelketa) Michelingo frontoian.  
 16:00etan, Ipintza - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz banaka 4 t'erdikoa, I. kadetea) Aforgan.

**Igandea 22**

10:30ean, Intza - Euskal Giroa (Udaberri txapelketa, eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Michelingo frontoian.  
 10:30ean, Intza - Hernani (Udaberri txapelketa, eskuz banaka 4 t'erdikoa, I. kadetea) Michelingo frontoian.  
 10:30ean, Intza - Antigua (Udaberri txapelketa, eskuz banaka 4 t'erdikoa, I. kadetea) Michelingo frontoian.

**SQUASH**

**HERRIKO TXAPELKETA**

18:00etatik aurrera

**Ostirala 20**

Oinatz Iparragirre - Iker Cañedo  
 Patxi Delgado - Irati Agirre

**Astelehena 23**

Michel Zugasti - Xabier Linazisoro  
 Joaquin Peña - Javier Serrano

**Asteartea 24**

Iñaki Garcia - Jon Linazisoro  
 Veronica Garcia - Oswal Cañedo

**Asteazkena 25**

Agustin Erkizia - Xabier Amiano  
 Alberto Udabe - Ivan Sancho

**TXIRRINDULARITZA**

**Larunbata 21**

08:30ean, herriko talde batek Ziklotour DV Orio-Gipuzkoako Txirrindulari itzulian parte hartuko dute, Orion.  
 10:30ean, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek LV Hesparru proban parte hartuko dute, Lazkaon.  
 16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako jubenilek XXVII. Elkartu Nahi sarian parte hartuko dute, Zegaman.  
 16:30ean, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantilek Zarautzko Sarian parte hartuko dute.

**Igandea 22**

08:00etan, Ostadarreko zikloturista taldeak irteera du Ibadineran.

**TENISA**

**Ostirala 20**

09:00etatik aurrera, Patxi Fadrigue herritarrek egokitutako teniseko Espainiako txapelketan parte hartuko du, Zaragozan.

**TRIATLOIA**

**Larunbata 21**

16:00etan, herritar talde batek Hondarribiako Triatloian parte hartuko du.

**ATLETISMOA**

**Larunbata 21**

16:30ean, herritar talde batek Antiguako Herri Lasterketa Berria! proban parte hartuko du, Donostian.

**Igandea 22**

Goiza osoa, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburuko atletak Gipuzkoako proba konbinatuak txap. dute, Elgoibarren.  
 10:00etan, herritar talde batek Pagoeta Mendi Lasterketan parte hartuko du, Zarautzen.

**GIMNASTIKA**

**Larunbata 21**

16:30ean, LOKE eta Landaberri ikastolako gimnasta taldeak Udaberri txapelketan lehiatuko dira, Ordizian.

**JUDO**

**Larunbata 21**

Egun osoa, LOKEko Mario Garridok 23 urte azpiko Estatu txapelketan parte hartuko du, Madrilan.

**BOLA-JOKOA**

**Larunbata 21**

Egun osoa, Ostadarreko taldeak Gipuzkoako txapelketa du, Idiazabal.

**ESKOLA KIROLA**

**Larunbata 21**

09:15etik 10:30era, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetan Multi-kirola egiten duten LH3 eta LH4 mailakoek futbol topaketa dute, Michelinen.



Herriko areto-futboleko finalean aurten ere ISU Leihoak eta Izkiña taberna egongo dira. laz ISU izan zen garaile, ea oraingoan.

# Areto-futbol finalean Izkiña eta ISU Leihoak berriz aurrez aurre

■ Obelixek eta Illunek jokatu dute kontsolazio finala  
 ■ Ligaxkakoa, berriz, Ilargi eta Ayete arteko lehia izango da

Larunbata honetan, arratsaldeko 15:30etik aurrera, Ostadar Kiroldegian Fundazioak antolatzen duen areto-futbol XXVIII. txapelketa herrikoari amaiera emango zaio kiroldegian.

Hiru final ezberdin eta partida berezia ikusteko aukera izango dute bihar arratsaldean kiroldegira hurbiltzen diren herritarrek.

**Finala**

Final handian, 18:00etatik aurrera, iazko finala ISU Leihoak eta Izkiña taldeen arteko norgehiagoka errepikatuko da.

Partida interesgarria eta gogorra ikusi ahaliko da ziu-

rennik, ISUK txapela defendatu eta Izkiñak iazko emaitzari buelta eman nahiko baitio.

**Kontsolazioa eta ligaxka**

Honen aurretik, arratsaldeko lehenengo finala, 15:30ean, kontsolazio lehiaketakoa izango da. Honetan Obelix eta Illun taldeak egongo dira aurrez aurre.

Ordu bat beranduago, berriz, ligaxkako finala jokatu dute Ilargi eta Ayete taldeek.

**Sarituak eta partida berezia**

Eta final handia baino lehen, Ostadarrek Auzolan eta Kiro-lari Onena sariak emango dizkiete San Pedro parrokia

atontzen duten emakume taldeari eta Leire Zubizarretari.

Hala ere, saribanaketa honen aurretik partida berezia ikusiko da, txapelketan parte hartu duten jokalariek osatutako talde misto batek Jalgune elkarte gazteen aurkakoa, hain zuzen ere.

**Ordu bat gehiago gauean**

Ostadar K. F.ko arduradunek jakin arazi nahi dute, herriko areto futboleko finalak direla eta, Udalak baimenduta, herriko tabernak gausez ordu bete gehiago irekita egongo direla.

Aukera ederra beraz, partehartzaile eta jarraitzaileak ondo pasatzeko. •

# Lasarte-Oriak ez du herriartekoan aurrera egiteko aukerarik

Lehenengo ostiralean hasi zuten Lasarte-Oriak herriarteko esku pilota txapelketa eta zorte txarra medio, 3 eta 0eko aurkako emaitzarekin itzuli ziren herrira pilotariak.

Taldeko arduradunek azaldu dutenez, "kadete mailako bikoak partida irabaziko zuela uste genuen eta honi esker, kanporaketan aurrera egingo genuela".

Hala baina, usteak erdia ustel, Axier Arteaga eta Ander Rekondo osatutako Lasarte-Oriako bikoteak, ez zuten Bidegoianekoa garaitu.

"Nahiz eta 4 eta 2 markagailuan aurre hartu, Ander Rekondok min hartu zuten eskuetako batean. Hortik

aurrera, Bidegoianeko biko-teak atzelariari lan eginarazi zion eta partida 22 eta 5 amaitu zen," adierazi dute.

Jubeniletako bikoteari dagokionez, Beñat Telleriak eta Unai Urruzolak 9 eta 22 galdu zuten.

Taldeko arduradunen ustez, "partida ona egin zuten. Kontuan izan behar da kadeteak direla eta haiena ez den maila batean lehiatu direla."

Azkenik, senior mailan, zoritzarreko partida izan zuten Lasarte-Oriako bikoteak.

"Bi partida galdu ostean, maila honetan garaipena lortzea espero genuen. Kanporaketa horrela irekia geratuko zen," aipatu dute.

Tamalez, markagailuan 9nako berdinketa zegoenean, Bidegoianeko atzelariari pilotak eskutik alde egin eta herriko atzelariari, Mikel Elolari begian eman zion. La Asunción klinikara eraman behar izan zuten eta bere lekua, Jon Peio Artetxek bete zuen.

Gauzak honela, Lasarte-Oriak bi aurrelarirekin jokatu behar izan zuten eta "nahiz eta ahaleginak egin, 22-14 amaitu zen partida," azaldu dute.

Era honetara, 3 eta 0eko emaitzaren ostean Lasarte-Oriak txapelketan aurrera egiteko ia aukerarik ez duela onartu dute taldeko arduradunek. •

## Egunero

### Erakusketa

PALESTINA ETA GOLANEKO GIZA ESKUBIDEAK argazki erakusketa. Jalgin, egun osoa.

## Ostirala, 20

### Bakarrizketa

KIKE BIGURIEN bakarrizketak Xpression Zirkuituan. Kultur-erretxeko kafetegian, 20:00etan, GAZTELANAZ.

### Hitzaldia

EGURALDIARI BURUZ arituko da Txanetenea baserriko Joxe Ramon Apaolaza. Zabaleta auzoan, 20:00etan.



### Antzerkia

BUAH TXABAL antzerki emandia, Unai Iturriagaren testua taularatuko du Jon Zubiakak. Kultur Errotaren barnean. Jalgi kafe-antzekian, 22:30ean, EUSKARAZ.



### Kontzertua

WHA WHA BUGA BAND taldearen reggae, blues eta rock doinuak entzuteko aukera. Abend-en, 00:00etan, doan.



## IX. Antzerki eta Dantza Astea

EUSKARAZ, KULTURETXEAN

### Astelehena 23

10:45ean eta 19:00etan  
Zuri beltzean eta Koloretako mundua, LH 1.

### Asteartea 24

11:30ean eta, 19:00etan  
Zortzi neska ta erdi, igogailuan eta Kutxidazu bidea Txabel, lanak DBH 2-4

### Asteazkena 25

11:15ean eta 19:00etan  
Mimo bat naiz, LH 3

### Osteguna 26

11:00etan eta 19:00etan  
Urtaroak, LH 2.

### Ostirala 27

12:00etan  
Dantzas Blai emandia.

12:00etan eta 19:00etan  
Mutilik ez dago, ala? eta Baietz harrapatu, Txanogorritu, DBH 1.

### Larunbata 28

18:30ean  
Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako ikasleen *desfilea* herriko kaleetan zehar.

### Igandea 29

12:30ean eta 19:00etan  
Dantzas Blai emandia eta Euskal Dantzak.

## Oharrak

### EHNarekin bozkatu

Bai Euskal Herriari taldeak deialdia luza-tu nahi die herritarrei maiatzaren 22an, hauteskundeetan Euskal Herriko Nazio-ta-sun Agiriarekin (EHNA) bozkatu dezaten.

### Maria Auxiliadoraren meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da maiatzaren 22an, igandean, 12:30ean. Amaitzeran pasta eta ardotxo batzuk konpartitzeko aukera.

### Zabaletako errotonda berria

Goiegi Ibarreko eta Zabaleta Berriko hiritzintza-garapen lanekin jarraituz, astelehenean, maiatzak 23, Nasipa SL enpresak Hernani Bidea eta Buenos Aires Aldapa arteko errotonda berria egiteko lanak martxan jarriko ditu, Zabaleta baserriaren ondoan. Lanek ibilgailu-zirkulazioan eragina izango dute. Edateko ur-horniketan ere etete zehatzak egingo dira, 23:00etatik eta 6:00etara. Lerro hauen bidez, Udalak bar-kamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik.

## Eskutitza

### Udal eta Autonomi hauteskundeetara begira

Udal eta Autonomi hauteskundeen markoan Saharekiko Elkarte solidarioen estatuko koordinatzaileak (CEAS-Sahara) alderdi politikoak, euren jarraitzaileak eta hiritarrak orokorri erreflexioa deitu nahi ditu. Demokraziaren erabilpenari eta Mendebaldeko Sahararen egoerari erreparatuz momentu garrantzitsu batean gaude.

Argi daukagu igandeko hauteskunde ikusmuga argia daukatela oraingoan barne politikan, bai herriko eta baita autonomia erkidegoko mailan, hala ere uste dugu ezin dela ahantzi Sahara Mendebaldean bizitze ari diren egoera luze eta larri haur. Herrialde honen egoera gure historia hurbileko zauri irekia da eta erantzukizun legal bat behar du. Espainia Saharako administratzaile izan da baina nazioarteko komunitateak betebeharrak hori kendu ez dion arren, gaitzetsi egin du.

Sahararren paper hori ezeztatzen saiatzen diren alderdi politikoak aurkitzen ditugu gure gizartean eta horregatik herritarrei alderdi hauei euren babesa kentzea eskatzen diegu:

- Alderdi hauek hainbatetan ikusi ditugu euren eginak defendatzen saiatzen, sahararrek modu askean botoen bidez hartutako erabakia onartu gabe.
- Bakea defendatzen dutenak baina euren estatua finantzatzeko gatazkan dauden herrialdeei armak saltzen dizkietenei.

- Giza eskubideen eta biztanleria zibilaren defendatzaile aurkezten direnei, baina Ben-

gassiko edota Tripoliko biztanleek pairatzen duten sufrimenduari balio ezberdina ematen diotenei. Honen harian libiar iraindu bati yeremi bati baino balio gehiago egotziz.

- Ustelkeria, politikaren instrumentu bezala erabiltzen dutenei eta horren gaizkile egin nahi gaituztenei, susmoan dauden hautagai horiek bozkatzera behartuz.

- Traizio historiko gaizto eta interesatuak iraunarazten dutenei, Sahara Mendebaldeko Maroko eta Mauritaniari eman ez, eta horrela gure historia hurbilean gaitzondo suposatuz duenari legitimitatea emanez.

- Elikagaien eskaintzarekin errefuxiatu sahararren behar minimoak justifikatzen dituztenei, baina hauen oinarriko beharrez ez dira arduratzen. Herrialde hauetako biztanleek duten sufrimendua isilpean mantenduz, errespetua ere ukatu egiten diete.

- Garapen politikoa eta guztiarentzat demokrazia erakitze-konpromisoa errespetatzen ez dutenei. Halaber, estura, zintotasuna, kolektibitatea, koherentzia bultzatzen ez dutenei.

Sahara Mendebaldean gure planetako beste lurraldeetan bezala, giza eskubideak defendatuko duen akordio politikoa-reen ezean, ezingo da ez bakerik ezta egonkortasunik eman. Honetaz gain, bikimentzako kalte ordain bilatu beharko da eta honetan Espainiak derrigorrezko erantzukizunak hartu beharko ditu.

Sahararrei ez diete bozkatzatzen uzten, bozka ezazu zuzen euren etorkizunaren pentsatuz.

ERREDAKZIOAN ITZULIA

**Sahara Herriaren Lagunak**

### Hauteskundeen aurrean zenbait oharpen

Azkeneko 4 urte hauetan hondakin errausketari buruz alderdi politikoek duten iritzia argi geratu da. Batzuek sutsuki babestu dute, ingurumen eta osasunaren eragingo dituen kalteak eta ekonomiarako zer-nolako hipoteka ekarriko duen isilduz.

Beste batzuek, osasunaren, garapen jasangarriaren eta natur zein ekonomi baliabideen aurrezpenaren aldeko argudio ukaezinen kontuan hartuz, erabat gaitzetsi dute.

Lasarte-Orian ere gauza bera gertatu da. Hemen, hurbiltasun arrazioak direla eta, aldeko iritzi batzuk anbiguoa azaldu behar izan baldin badute ere, jarrerak argi geratu dira.

Batzuek errausketa planta ez dutela nahi esan badute ere, ez dute planta hori erakitzea eragozte aldera ezertxo ere egin: gezurretan, manipulatzen ala disimulatu ibili dira.

PSE, PNV, H1 eta PPK egin duten moduan, gure herriaren alde lan egiten dutela esatea, beren partiduetako goi-garguek gure herria inork nahi ez dituen azpiegituren kokaleku bihurtzeko emandako aginduei men egiten dieten bitartean, primerako gezurra da.

Atez ateko gaikako bilketa bosgarren edukiontzia bitartezko baina garestiagoa dela esatea gezurra da.

Lurperatutako edukiontziek gure kaleen garbitasuna eta gure baliabideen kontsumo arduratsua eragiten dituztela esatea gezurra da.

Lasarte-Oriako herritarrek hondakinak murrizteko, berrera-biltzeko eta berziklatzeko ardurak jokatze prest daudela baieztatzen dituzten iritzi-ikerlanak isilean gordetzea manipula-

zioa da.

Nazioartean eredu garri diren hurbileko herrietako esperientzien emaitzei buruzko gezurrak zabaltzen ibiltzea manipulatzea da.

Konpostaje planta batek osasunaren eta ingurumenaren eragiten dituen kalteak erausketa planta batek eragindakoen pare-jartzea manipulatzea da.

Eta, azkenik, gure hondakin zati ez aprobetsagarria minimizatuko luketen eta errausketa planta erakitzea benetan eragotziko luketen atez ateko bilketa bezalako proposamenak eta proiektuak, nahiz eta esplizituki ez errefusatu, ez bastea disimulatu ibiltzea da.

Alkateak esan zigan hainbatetik ez zutela nahi ateko bilketa Lasarte-Orian. Guk ordea, elkarte makina baten atxikimenduz, hori ere beste manipulazio bat baino ez zela egiaztatu dugu.

Hondakinak erraustea ala modu jasangarrian kudeatzea oraindik ere gure esku dago.

Errausketaren aldeko botoirik ez! Errausleak eta konplizeak alde auletetik!

**Lasarte-Oria Bizirik**

### Etika gutxi

Oso urduri egon behar du Lasarte-Oriako PSOE, bere programa politikoan, hasiak dauden BOEak berriro ere saltzeko. Honetaz gain, "merkantzia matxuratu" saltzen saiatzen ari dira, hala nola prezio taxutuko 180 etxebizitzak, hau da., Nasipa, Gedi edo Aburuzak (etxebizitza hauen eskuratzailak ez dute zertan etxebizitza beharra edo diru-sarrerak argudiatu behar, gainera BOEn prezioaren

bikoitza dukate, eta 8 urteren ondoren merkatu librean saltzeko aukera dute, espekulazioarako bidea irekia) eragindako arazo ekonomikoari irtenbidea bilatzeko. Honetaz gain, bere programa elektoralaren EB aurkeztutako proposamenak eta bere garaian atzera botatutakoak, aurkezten ditu, hala nola zabarren tasetan beharpena egitea birziklapenean %50era iritsiz gero. Kanpainaren azken txanpan gaudela, azpiko traketsera jo du prentsara oposizioari baino lehen kooperazio laguntzei buruzko ikerketa batzordeko ondorioak ezkututa zabalduz. Idazkariak idatzitako ondorio horiek irakurrira PSOE eta PPren diktaketa direla ematen du, eta bertan Ana Urchueguiari egotzi zaizkion edozein delitu edo arau-haustetik errugabetu egiten du.

Txostenaren egileak subentzioen kontzesiorako beharrezko betekizun legeletan hautsitako egintza eta ez egiteak eta ondorengo kontrola eta fiskalizazioaren jokabidearen inguruan dio "esparru ekonomiko-administratiboen araututakoarekin bat ez datorrela". Txosten horretan, amaitzeko "ez dago arrastorik non horietan delituri egin dela adierazi daitezkenik" aipatzen du idazkariak. Guzti hau gainera erantzukizun politikoetan, ekonomikoetan, administrazioetan edota Ana Urchueguiak edota Lasarte-Oriako Udaleko arduradunak eragin alhal izan dituztenez sartu gabe.

Etika gutxi eta zuzenketa asmo gutxi ikusi daitezke PSOE-ren azpiko honen atzean.

ERREDAKZIOAN ITZULIA

**Ricardo Ortega EB-Berdeak-eko zinegotzia**



herritar  
**PLATAFORMA**  
ciudadana  
LASARTE-ORIA  
www.pclo.net



*somos gente como tú*

*zu bezalako  
herritarrak gara*

**Zure botoak gauzak alda ditzake**  
**Tu voto puede hacer cambiar las cosas**

**IREKI  
BIDEA  
EZKERRARI**

Bozkatu



**BAKEARI  
EUSKARARI  
EUSKAL HERRIARI  
POLITIKARI**